

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA**

2019-12-03 Euskalduna Jauregia / Palacio Euskalduna 03-12-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri ordezkariok, gizataldeetako ordezkariok, ekitaldi honetan parte hartu duzuen euskaldun guztiok eta euskaldunak ez zaretenok, beste hizkuntza gutxituetako ordezkariok ere, arratsalde on.

Euskararen Nazioarteko Egunean eskerrik asko “bide eta modu berriak” irudikatu eta proposatzeagatik. Euskal gizarteak egindako bide malkarra ez da makala izan eta, gaur, aitortzea dagokigu: zorionak, bihotzez!

Nuevos caminos, modos, tiempos, retos para el euskera.

Bideak, Moduak, Garaiak, Erronkak... dena da berria, eta, era berean, dena da ezaguna.

Etxeparek orain bost mende eskatu bezala, euskaldunok bide luzea dugu egina euskara duintasun osoz plaza eta eremu guztietara eramateko. Lauaxetak orain dela ia mende bat proposatu legez, Eider Etxeandiak gogoratu bezala, ‘bide barriak’ hartuko ditugu unean uneko egoerari ahalik eta egokien erantzuteko.

Euskal gizarteak hautu bat egin zuen aspaldi eta aldiro berretsi egiten du: euskara bizi-bizirik nahi dugu gaurko eta biharko gizartean. Garenaren parte garrantzitsua delako, aberasten gaituelako, euskarak gehitu egiten duelako, inoiz ez kendu... Euskarak bere txikitasunetik mundua aberasten du, anitzago egiten du, ederrago... Ibilbide bat egin dugu, ibilbide horri jarraipena ematea dagokigu.

Nuevos caminos, modos, tiempos, retos para el euskera.

Iragan urtean, Euskaraldian, ‘ahobizi’ eta ‘belarriprest’ izateko konpromisoa hartu genuen. Gure hizkuntza ohiturei astindu bat eman eta euskara biziberritu genuen, indarberritu. Orain, konpromiso hori auzolan bihurtzea dagokigu: ariguneak sortuz... Lan-munduan, lagunartean, aisialdian, kultur-sorkuntzan,

kiroletan... ariguneak sortu behar ditugu. Euskaraz hitz egiteko gune erosoak bete behar dugu euskararen herria.

Nuevos caminos, modos, tiempos, retos para el euskera.

Bultzada berriak behar ditugu eta, hori lortzeko, denon beharra dugu. Baina gaur, hemen, Euskaldunan, elkartutako euskaldunon aitzindaritzak, konpromisoa eta hauspoa nabaritu nahi dut bereziki.

Zuek guztiok gabe ezinezkoa izango zen bide, modu, garai eta erronka berriei erantzutea. Ahobizi eta belarriprest zarete, ariguneak eraikitzeke ezinbesteko lagun. Aitzindariak zarete, eta aitzindaritzak horri eutsi behar diozue; orain arteko gogo, anbizio, ilusio eta irudimenarekin.

Eskerrik asko eta, Euskararen Nazioarteko Egunean, zorionak guztioi!